

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Ebazpenaren laburpena, Tokiko Gobernu Batzordearen 2021eko irailaren 23koa, zeinaren bidez 2020. urtean seme-alabak jaiotzeagatik eta/edo adoptatzeagatik dirulaguntzen deialdia onesten baita**

DDBN (Identif.): 585298

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/585298>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Baldintza hauek betetzen dituzten gurasoak:

1. Dirulaguntzak emango dira 2020an jaiotako edota adoptatutako seme-alabengatik.
2. Onuradunak bost urtez egon beharko du Amurrion erroldatuta azken hamar urteetan eta, horietatik bat, gutxienez, modu jarraituan eta jaiotzaren edo adopzioaren egunaren aurre-aurrekoan.
3. Familia unitatearen urteko diru sarrerak ezingo dira izan 20.000,00 eurotik gorakoak. Laguntzak eman ondoren aurrekontu partidan kreditu erabilgarria egonez gero, eta kasu horretan soilik, eman ahalko zaie laguntza urteko 20.000,00 eta 25.000,00 euro arteko diru sarrerak dituzten familiei. Diru sarreren bigarren tarte horretan dauden familiei emango zaizkien banan-banako gehieneko zenbatekoak ehuneko jakin batean gutxitu ahal izango dira, hain zuzen ere, diru sarreren lehenengo tarteari dagozkion laguntzak balioetsi eta eman ondoren erabilgarri dagoen aurrekontu esleipenarekin ordaindu ahal izateko beharrezko ehunekoan.
4. Nahitaezkoa da eskatzailearen familia unitate osoa Amurrion erroldatuta egotea seme-alaba jaio edo adoptatzen den unean.

#### **Bigarrena. Xedea**

2020an seme-alabak izan eta/edo adoptatzeagatik norgehiagoka bidez emango diren dirulaguntzak arautzea.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Amurrioko Udalaren osoko bilkurak 2021eko martxoaren 11n onetsi zituen, eta testu osoa urte bereko maiatzaren 28ko ALHAOn argitaratu zen.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdia 10.000 euroekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hogeita hamar eguneko epean.

Amurrio, 2021eko irailaren 24a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*